

"JULIO CARO BAROJA" NAFARROAKO MUSEO ETNOLOGIKOKO FUNTSEN ARGAZKIAK ETA FILMAZIOAK EGITEKO BALDINTZAK.

1. Eskabidea idatziz egin beharko da, zein posta bidez zein posta elektronikoz, helbide hauetara: Nafarroako Museo Etnologikoa, Merkatondoa, 13-4. nabea. 31200-Lizarra eta museo.etnologico.navarra@navarra.es.

Eskabidean ondoko hauek zehaztuko dira: zertarako diren irudiak; eskatzailearen datuak eta argazkiak eta filmazioak egin behar dituen enpresa edo profesionalarenak.

2. Piezak jendearentzat bisitagarri ez diren aretoetan bilduta daudenez, nahitaez hitzordua jarri behar da museoko teknikariek. Lana egun baliodunetan egingen da, astelehenetik ostiralera. Ordutegia: 08:00-15:00.

Irudiak hartzeko ekipoa eta langileak eskatzaileak eraman eta ordainduko ditu.

3. Eskabidean adierazi bezala erabiliko dira hartutako irudiak, ez besterik. Gainerako erabilerek beste baimen bat beharko dute.

4. Irudien jatorria ongi identifikatuko da, dela argazki-oinen bidez, dela beste bide bat erabiliz. Ohar hau jarriko da: "Julio Caro Baroja"-Nafarroako Museo Etnologikoko bilduma- Nafarroako Gobernua.

5. Baimendutako irudiak ageri diren argitalpenen edo beste euskarrien ale bat igorri beharko du eskatzaileak "Julio Caro Baroja" Museo Etnologikoko artxiboetara. Orobat, igorriko du hartutako irudien kopia digital bat. Museoak erabil ditzake irudi horiek zabalkunderako, irabazi asmorik gabe. Egilea zein den jarriko du eta ezin izanen ditu utzi hirugarren batzuek erabil ditzaten.